

## Elizbarrutiko Elizaren Eguna

**B**este urte batez, ate joka dugu Elizbarrutiko Elizaren eguna. Gainerako kristauekin Eliza osatzen dugula gogoratzeko eguna dugu, Eliza osoko kide garela eta hori agerian jartzen dela zehazki Gipuzkoako eliz elkartean. Donostiako elizbarrutiko eliz elkartean bizi gara, elkarte honetan ospatzen eta sendotzen dugu elkarrekin geure sinesmena eta bokazioa. Norbera zer den kontuan izanik egiten dugu hori: apaiz, pertsona sagaratu, laiko. Bai garrantzitsua, deituak garela jabetzea! Gu guztioi eta gutako bakoitzari bere bokazio berezia eman dio Jaunak. Egin dezagun etengabe otoitz nork bere tokia aurki dezan nola munduan hala Elizan. Eta egin dezagun otoitz bokazioak ager daitezen.

Kristau-fedearen eta dei horren arabera, konprometituak bizi gara kristauok, nor bere ahalmenen neurrian, gure Elizaren bizitzan eta misioan. Eta badakigu denok garela erantzule Eliza mantentzeko garaian ere. Anaia eta arreba askok bere sormena, denbora eta indarrak eskaintzen ditu gure Eliza bizkortzeko eta eusteko. Eliztarron emaitza ekonomikoa oso garrantzitsua da. Horrela, denok eragiten diogu geure elizbarrutiko Elizari sail ezberdinetako jardueran (ebanjelizatze-lanean, gizarte-ekintzetan, ondarea zaintzeko ahaleginean...). Denok ematen dugu zerbait. Auzolanean bezala ari gara: denok lanean denon onerako. Erantzunkidetasun honi esker aurrera darama gure Elizak bere misioa.



† **Fernando Prado Ayuso**  
*Donostiako Gotzaina*

Elizbarrutiko Elizaren egun hau, eskerrak emateko eguna da, batik bat. Eskerrak, Elizak eman digun eta ematen ari zaigun guztiagatik. Orobat, denok dugun konpromisoa berritzeko eguna ere bada. Elizaren jarduerarekin dugun konpromisoa eta Elizaren mantenuarekin dugun konpromisoa.

Gu guztiok eta gutako bakoitza lankide nahi du Jaunak, bere asmoak aurrera eramateko. Nork bere bokazioa kontuan duelarik, denok gara garrantzitsu eta denon artean daramagu aurrera ebanjelizatze-lana. Gure laguntza espirituala, gure otoitza, giza baliabideak garrantzitsuak dira; baliabide ekonomikoak ere bai. Denen partehartze eta lankidetzari esker, Gipuzkoako eliza errealitate oparoa da, eta gure gizarteari ere zerbitzu bikaina eskaintzen dio.

Jainkoari esker, gero eta fededun gehiagok ikusten du eliz elkartea «gu» garela, hemengo «gure» eliz elkartearekin konprometitu egon beharra duela, erantzukizunez jokatu nahi badu, elizbarrutiko elkar-tearen beharrak gureak direla sentituz. Ahalegin honen emaitza gero eta garbiago ikus dezakegu, eta gure emaitzak nora doazen jakiteko informazio gero eta argiagoa ere hartzen dugu: apostolutza-lanetara, zerbitzuetara, karitate-ekintza ezberdinetara eta gure kristau-elkarteen mantenu materialera. Elkarte ahulenek nahiz ugarienek hartzen dute, nagusiki, gure emaitzen eta konpromisoaren laguntza.

Bihotz-bihotzez eskerrak zuen eskuzabalagatik, zuen otoitzagatik, zuen ahaleginagatik eta Elizari eskaintzen diozuen zerbitzuagatik. Fededun eta borondate oneko pertsona guztiok animatu nahi zaituztet, beste urte batez zuen lankidetzara erantzunkizunez eskaintzen jarraitzera, gure elizbarrutiko Elizaren onerako. Eskerrik asko.

Har ezazue nire maitasun eta bedeinkapena. *In Corde Matris.*